

**ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAREN XXII. ASTEAREN
INAUGURAZIOA / INAUGURACIÓN XXII SEMANA DE LA CIENCIA,
TECNOLOGÍA Y LA INNOVACIÓN**

2022-11-08 Vitoria-Gasteiz 08-11-2022

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Herri agintari eta ordezkariok; errektoreok; Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Kontseiluaren kideok, jaun-andreok, arratsalde on.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Astea irekitzen dugu. Mende berriarekin hasi zen, 2000. urtean, Europaren ereduari jarraituz.

Astea gizarte osoari irekitako erreferentziazko ekitaldi gisa finkatu da. Balio izan du ikerketari eta berrikuntzari balioa emateko eta, hemen, Euskadin, garatutako azken aurrerapen zientifiko eta teknologikoak ezagutarazteko.

Lan garrantzitsua eta beharrezkoa da, eta ikerketa-jarduera onuradun nagusienengana, hots, herritarrengana, hurbiltzeko balio du.

Esta Semana de la Ciencia, la Tecnología y la Innovación se ha consolidado como un evento de referencia abierto a toda la sociedad.

La ciencia, motor de desarrollo humano, es una búsqueda continua de conocimiento. Mejorar la vida de las personas es la más noble contribución de la ciencia.

La investigación debe contribuir al progreso económico y a la resolución de los retos de la sociedad, como se ha demostrado con la pandemia.

Este principio sigue teniendo vigencia cuando nos enfrentamos a nuevos retos derivados de la situación geopolítica mundial, la guerra en Ucrania, las tensiones económicas y energéticas o el cambio climático.

Vivimos tiempos de incertidumbre, con una necesidad creciente de nuevos modelos y soluciones que den respuesta a las megatendencias globales que cada vez se aceleran más. Las mesas redondas girarán, precisamente, en torno a los retos que plantea la triple transición tecnológico-digital; energético-climática; demográfico-social y sanitaria. Analizaremos las respuestas que podemos ofrecer desde Euskadi.

La investigación y la innovación es una apuesta de País. Compartida por todas las entidades y organizaciones que conformamos el ecosistema vasco de

innovación, tal y como ha quedado reflejado en la reunión del Consejo celebrado hoy aquí en Miñano antes de este acto.

Queremos sumar y hacerlo con una visión de largo plazo.

Nuestro reto es avanzar como Territorio atractivo para la investigación, la innovación y el talento, conectado con las cadenas globales de conocimiento. Para ello estamos impulsado actuaciones en tres pilares: “Excelencia Científica”, “Liderazgo Tecnológico Industrial” e “Innovación Abierta”, así como en el “Talento” necesario para garantizar su desarrollo.

Impulsamos proyectos emblemáticos desde el modelo de colaboración público-privada:

- Net Zero Industrial Super Cluster;
- Ecosistema y Corredor Vasco del Hidrógeno;
- CCAM Lab de Movilidad Conectada, Cooperativa y Autónoma;
- BasqueVolt, Nueva generación de baterías;
- Health Data Ikerkuntza;
- Laboratorio de gastronomía digita;
- Misión Unión Europea de Adaptación Climática;
- Centro de Investigación e Innovación en Regeneración Urbana;
- Basque District of Culture and Creativity;
- Economía del Dato y Basque Quantum Ecosystem; o
- Euskadi Talent.

Asmo handiko proiektuak dira, asmo handiko helburuak ezarri ditugulako 2030 urterako.

Gure eginkizunaren emaitzak etengabe neurtzen ditugu hobetzen jarraitzeko. Argitaratu berri den “2022 Euskadiko Zientziari buruzko Txostenak” jasotzen duen bezala, ekoizpen zientifikoa % 16 hazi zen pandemia aurreko produkzioarekin alderatuta. Balioa bikoiztu egin dugu azken hamarkadan. Era berean, bikoiztu egin da nazioartean ospe handiena duten aldizkarietako argitalpenenak.

Horrekin batera, Euskadik ikerketa eta garapen inbertsioan Estatuko erkidegoen buruan jarraitzen du eta Barne Produkzio Gordinaren % 2,2ra iritsi gara.

Atzo bertan, Eustat-ek Euskadiren egoera jakinarazi zuen 2022ko European Innovation Scoreboard-ean eta gure errendimendua hobetu dugu. Berrikuntza handiko herrialdeen artean sendotu gara eta Europako batez bestekoaren %10 gaintik gaude.

Debemos mantener este rumbo estratégico de inversión y colaboración.

Euskadi lidera la inversión en I+D en el Estado, con un 2,2% sobre el PIB. Logramos el mayor retorno per cápita de Fondos europeos, triplicando la media del Estado.

Eustat ha hecho pública la situación de Euskadi en el European Innovation Scoreboard 2022. Hemos mejorado nuestro rendimiento, lo que nos permite consolidarnos entre los países de alta innovación, un 10% por encima de la media europea.

Son muy buenas noticias. Indican que progresamos adecuadamente, pero no nos conformamos.

Trabajamos para dar continuidad a este esfuerzo inversor, porque entendemos que es una apuesta estratégica de futuro para Euskadi. Este 2022 hemos incrementado un 10% nuestras partidas de apoyo a la I+D+i. En 2023 queremos hacerlo un 12%, tal y como figura en el proyecto de presupuestos que acabamos de presentar.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Aste hau aukera bat da. Gure enpresen, unibertsitateen, teknologia- eta ikerketa-zentroen, osasun-ikerketako zentroen edo erakunde publikoen aurrerapen nagusiak gizartearekin partekatzeko aukera. Exijentzia handiko une hauetan, berriro ere erantzukidetasunerako deia egiten dugu, guztiok, auzolanaren espirtuarekin, Euskadirentzat etorkizun hobe bat eraikitze bidean gure ekarpena egin dezagun.

Ziurgabetasun eta moteltze ekonomikoaren aurrean, ekonomia suspertzeko eta enplegu-aukerak sortzeko konpromisoari eusten diogu. Kalitatezko enplegua ezagutzan intentsiboak diren sektoreetan, ikerketan eta berrikuntzan oinarrituta.

Esta Semana de la Ciencia, la Tecnología y la Innovación compartimos la firme convicción de que nuestro futuro pasa por la innovación.

En estos momentos de máxima exigencia, apelo a la corresponsabilidad y el compromiso compartido para que, con la filosofía “auzolana”, aportemos nuestro grano de arena a la construcción de un futuro mejor para Euskadi.

Muchas gracias a todas y a todos por su participación y deseo que tengan una positiva y provechosa Semana.

Uste sendoa dugu gure etorkizunak berrikuntza eskatzen duela eta, horregatik, eskertzen ditugu Aste honen antolaketa eta zuen parte hartzea ere.

Eskerrik asko eta Aste ona izan!